

## **Edinorrek eta Athletic Clubek Ligako lehen eguzki-energia komunitate bihurtuko dute San Mames**

- **Guztira 300 eguzki-plaka instalatuko dituzte, eta hauei esker, erabiltzaileen elektrizitate-faktura % 25 murrizteaz gain, urtean 425 tona CO<sub>2</sub> gutxiago isuriko dira, hau da, CO<sub>2</sub> 25 urtez xurgatuko luketen 1.600 zuhaitz landatuko balira bezalaxe.**
- **TEK deritzen Edinorren energia-komunitateek 0 km-ko energia iraunkor eta merkea sortu, kontsumitu eta partekatzeko aukera ematen dute.**
- **Edinorren eredia 500 metroko erradioan kokatutako etxeei zuzenduta dagoen arren, Athletic TEK irekita dago ekimenarekin bat egin nahi duten guztientzat [www.tekathletic.eus](http://www.tekathletic.eus) webgunearen bitartez.**

**Ostirala, 2021eko maiatzak 21.** Edinorrek eta Athletic Clubek plaka fotovoltaikoak instalatuko dituzte gaurtik aurrera San Mameseko estalkian, estadioa Ligako lehen eguzki-energia komunitate bihurtzeko asmoz.

Proiektuak 150.000 euroko inbertsioa ekarriko du, eta gaur goizean abiarazi da lehen 12 plaka fotovoltaikoen instalazioarekin. Guztira, 100 kWeko potentzia duten 300 eguzki-plaka instalatuko dira, eta horiei esker, erabiltzaileen elektrizitate-faktura % 25 murrizteko aukera izango da. Era berean, ekimen honen bitartez, urtean 425 tona CO<sub>2</sub> gutxiago isuriko dira, hau da, estadioaren inguruan gas hori 25 urtez xurgatuko luketen 1.600 zuhaitz landatuko balira bezalaxe.

TEK (Tokiko Energia Komunitatea, euskaraz) izenaz ezagutzen diren Edinorren energia-komunitateek 0 km-ko energia iraunkor eta merkea sortu, kontsumitu eta partekatzeko aukera ematen dute. TEKek 200 bizilagunek urtean kontsumitutako energia elektrikoaren % 25 sortzen dute, eta gainerako % 75a lortzeko, haiexek aukeratzen dute energia garbiaren sorkuntzaren arloko zein enpresari erosiko dioten.

Edinor arduratzen da guztiaz: aholkularitza eman eta espazioak identifikatzen ditu eta instalazioaren abiaraztea eta geroko garapena kudeatzen ditu. Gainera, tokiko enpresen trakziogilea izango da, sistema fotovoltaikoen instalazioa eta mantentze-lanak tokiko hornitzaileen bitartez egingo baitira, nagusiki.

Testuinguru honetan, Athletic TEK deritzona, San Mamesen sortutako energia garbia zale zurigorriei eskaintzeko asmoz sortu da. Horretarako, Edinorren eredia 500 metroko erradioaren barruan kokatutako etxeei zuzenduta dagoen arren, Athletic TEK irekita egongo da hain hurbil bizi ez baina energia berriztagarria lortu nahi duten pertsona guztientzat, preziorik onenean erosteko aukera izan dezaten baterako erosketaren bidez. Bat egiteko interesa duten guztiek [www.tekathletic.eus](http://www.tekathletic.eus) webgunean egin dezakete.

### **Edinorri buruz**

Edinorrek, energia berriztagarrien arloko Petronorren filialak, ingurumenarekiko errespetuan oinarritutako energia kontsumitzeko alternatiba iraunkorra eskaintzen die herritarrei. 0 km-ko energia berriztagarria sortu, kontsumitu eta partekatzeko modu honek ingurunearen garapena eta kalitatezko enpleguaren sorrera bultzatzen ditu, eguzki-komunitateen instalazioa eta kudeaketa tokiko hornitzaileen bitartez bideratzen dituen heinean.

Horrela, Edinorrek energia elektrikoaren sorkuntza deskarbonizatu eta herritarrak energia arloan ahalduntzearen alde egin du, herritarrak energia-sorkuntzaren eta geroko kontsumoaren nondik norakoez jabe daitezen.